

## I.- KONTRATUA GAUZATZEA

## 1.- ARAU OROKORRAK

- 1.1 Enpresa hornitzaileek Jarduera Ekonomikoetan alta eginda egon beharko dute, eta, era berean, egunean egon beharko dute Gizarte Segurantzarekiko kuotak eta bestelako zorrak ordaintzeari dagokionez. Halaber, Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta eginda eduki beharko dituzte haien zerbitzura lan egiten duten langileak kontratuak irauten duen artean. Betebehar horietako bat betetzen ez badute, EJIek kontratatutako enpresarekin indarrean dituen kontratuak suntsitu ahal izango ditu.
- 1.2 Egindako lanak, fase guztietan, EJIeren jabetzakoak izango dira, eta, beraz, EJIek prestazioen zati bat entregatzea eskatu ahal izango du edozein unetan, betiere lantzeko behin betiko programarekin bateragarria bada eta lanaren bilakaera egokiarri eragiten ez badio.
- 1.3 Kontratu hau behar bezala gauzatzeko egindako lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezin izango du harentzat erabili edo hirugarrenei eman kontratatutako lanei buruzko inolako daturik edo informaziorik EJIeren berariazko baimenik gabe; hortaz, enpresak haren esku dauden bitarteko guztiak jarri beharko ditu EJIEngandik jasotako informazioaren eta dokumentazioaren eta egindako lanean eskuratutako emaitzen konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna bermatzeko.  
Lan horiek sorraraz ditzaketen jabetza intelektualeko eta "copyright"-aren eskubide guztiak EJIeren jabetzakoak izango dira soilik. Alderdiak dagokion dokumentua eman beharko dute behar denean, egoera hori publikoki jasota gera dadin edozein erakunderen edo erregistraren aurrean, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai eta Espainiako Estatuaren Administrazio Orokorrean ere.  
Dena dela, enpresa esleipenduna izango da betebehar horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte-galeren erantzulea.
- 1.4 EJI hirugarren pertsonen egin ditzaketen erreklamazioetatik salbuetsita egongo da, jabetzari edo lehentasunezko eskubideren bati, edo enpresa esleipendunak saldatuko lan informatikoei edo lan horien gaineko jabetza intelektuala edo industria laratu izanari dagokienean.
- 1.5 EJIek onartutako aurrekontua kontratatutako lanak egiteko gehienezko aurrekontutzat joko da. Enpresa hornitzaileak uste badu EJIeri egotz dakizkiokeen arazoak daudela, eta horiek prezioak berrikustea dakartela, idatziz jakinaraziko dio enpresaren zuzendaritzari, eta horrek berrikuspen hori egin ahal izango du.
- 1.6 Enpresa esleipendunak aldiakako txostenak egingo ditu kontratatutako zerbitzuen egoeraren gainean. Une horretan adostutako helburuei dagokienean zer aurrerapen lortu den adieraziko du, bai eta zer atzerapen egon daitezkeen ere, eta horien arazoak aztertu eta zer neurri zuzentzaile adostu diren jakinaraziko du.
- 1.7 Lagapenak edo azpikontratuak debekatuta geratzen dira hasiera batean, eta EJIek horretarako baimenik emango balu, idatziz egingo luke; horretarako, aurrez, [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian horretarako dagoen bantailoia jaso beharko du, eta eragiketa egin aurretik azpikontratatzailer edo lagapen-hartzaile posibilearen edozein dokumentu, txosten, datu edo berme eskatu ahal izango du. Behar bezala baimendutako enpresa azpikontratatzailer edo lagapen-hartzaile azpikontratatzailer nagusiaren betebehar eta eskubide guztien mende geratuko da, lagatuko edo subrogatutako kontratuaren zatia dagokienean. Hasierako enpresa esleipendunak EJIeren aurrean bermatuko du, espresuki kontraktorik adosten ez bada, esleipenaren arabera haren gain hartu zituen betebehar guztiak beteko direla, horiek laga edo azpikontratatu egin baditu ere, eta lagapen-hartzailearen edo azpikontratatzaileraren bermatzaile izango da beraz.
- 1.8 Ezin izango da aldatetarik egin kontratuaren xede den zerbitzuan EJIeren baimenik gabe edo ezinbesteko arazoengatik ez bada. EJIeren baimenarekin ordezkapenak egitekoan, egokitzapen-aldi bat eskatzen badute, hornitzailearen kontura izango dira. Egoera bakoitzean baldintza berezietan jasotako zigorrik ere aplikatu ahal izango dira.
- 1.9 Obrak edo proiektuak egiteko edo zerbitzuak emateko kontratuak eginez gero, kontratatutako enpresak EJIeri jakinarazi beharko dio erakundeko zer pertsona izendatu duen EJIek [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian zehaztuko dituen prozeduren arabera prebentzio-jarduera kudeatzeko eta koordinatzeko.
- 1.10 Obrak edo proiektuak egiteko edo zerbitzuak emateko kontratuak eginez gero, kontratatutako enpresak hileroko egiaztatu beharko du EJIEn zerbitzu ematen duten haren langileei dagozkien soldata ordaindu dizkiela. Soldata ordaintzen ez baditu, edo betebehar orokor hori betetzen ez badu, EJIek kontratatutako enpresarekin indarrean dituen kontratuak suntsitu ahal izango ditu.
- 1.11 Kontratu hau eraginkor izan dadin, enpresa hornitzaileak EJIeri igorri beharko dio kontratua izenpetuta, baldintza orokor hauetan zehaztutako gainerako dokumentuekin eta ziurtagirerik batera. Eskaintzaren eskaria oinarri teknikoaren orri baten bidez egin bada, esleipendunak proposamen ekonomikoaren eredu ia igorri beharko du izenpetuta.
- 1.12 Zerbitzu edo proiektu informatikoak kontratatuz gero, EJIeren edo haren bezero diren erakundeen instalazioetatik kanpo eta haien informazio-sistemetara sarbide zuzenik izan gabe, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du haren lanerako emandako datuak jasotako jarraibideen arabera soilik erabiltzeko, eta horiek ez aplikatzeko edo erabiltzeko kontratuan jasotakoa ez den beste xede baterako, eta horiek ez jakinarazteko beste pertsona batzuei ezta horiek jasotzeko bada ere. Enpresa kontratuak, gainera, konpromisoa hartzen du kontratatutako langile guztiek jaso dutela eta ezagutzen dutela "Informazio Sistemaren Segurtasun Politikak" dokumentua, EJI, SAren [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian argitaratutakoa, eta baieztatuko du, gainera, horren edukia haien gain hartzen dutela eta haien jarduerak dokumentu horretan ezarritako irizpideetara egokitzeko konpromisoa hartzen dutela.
- 1.13 Laguntzako zerbitzu edo proiektu informatikoak kontratatuz gero, eta horiek kontratatutako enpresako langileak EJIeren edo haren bezero diren erakundeen instalazioetara eta haien informazio-sistemetara sartzea badakarte, kontratatutako enpresak honako hau igorri beharko dio EJIeri behar bezala izenpetuta kontratuarekin batera: ziurtagiri bat, hitzez hitz baieztatuko duena EJIEn lan egingo duten langile guztiek jaso dutela eta ezagutzen dutela "Informazio Sistemaren Segurtasun Politikak" dokumentua, EJI, SAren [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian argitaratutakoa, eta baieztatuko du, gainera, horren edukia haien gain hartzen dutela eta haien jarduerak dokumentu horretan ezarritako irizpideetara egokitzeko konpromisoa hartzen dutela.

## 2.- ESLEIPENDUNARI ORDAINTZEA

- 2.1 Enpresa esleipendunak eskubidea du emandako kontratuaren, haren onartutako aldatetari eta EJIek idatziz emandako aginduen arabera benetan egindako lanak ordain diezazkizoten, adostutako prezioekin bat.
- 2.2 Enpresa esleipendunak, EJIeri faktura bat egin baino lehen, kontratuaren xede diren zerbitzuak eman dituela justifikatu beharko du. Zerbitzuak eman izana justifikatzeko, kontratuan zehaztutakoaren arabera entrega partzialak edo osoak egin beharko ditu, eta honako dokumentazio hau jaso:
  - a) Lanen memoria
  - b) Horretarako gauzaturako eta EJIek izendatutako saiakuntza-bankuen deskribapena; beharrezko iritzi gero, enpresa/erakunde esleipendunaren ordezkarri bat joango da horietara.
  - c) Materialei eta/edo zerbitzuei dagokienean, enpresa esleipendunak, EJIeri faktura egin aurretik, entrega egin duela justifikatu beharko du entrega-albarana emanez.
  - d) Lan horiek jaso izanaren akta, EJIeko arduradunak/ek izenpetuta.
- 2.3 Kontratuaren gai diren fakturak, EJIek ordainduko ditu, behin kontratuaren baldintzak egiaztatu dituzenean eta behin EJIek ezarritako barne kontrolak zein baldintza orokor hauen 2.4 saillean ezarritako eskakizunak modu egokian gainditu dituztenean. Era berean, fakturretan, gure eskaera-zenbakia irreferentzia egin beharko zaio. Eskakizun horiek betetzen badira, ordaintzeko gehienezko epea faktura egiten den egunetik 60 eguneko izango da.
- 2.4 Obrak edo proiektuak gauzatzeko edo zerbitzuak emateko kontratuak sortutako fakturak ordaintzeko, ezinbestean adierazi beharko da horietan zer langile ematen duten zerbitzu, eta [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian jasotako I. eranskina igorri beharko da zigitatuta eta enpresako ahaldundun behar bezala izenpetuta. Gainera, eguneratuta egon behar dute enpresa-jardueren koordinazio-aplikazioan jasotako enpresaren honako dokumentu hauek: soldata ordaindu izanaren egiaztagiria, EJIeren segurtasun-politikak onartzeko sinadura eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta dituela egiaztatutako ziurtagiria.
- 2.5 Obrak edo proiektuak egiteko edo zerbitzuak emateko kontratuak eginez gero, kontratatutako enpresak idatziz jakinarazi beharko dio EJIeri haren erakundeko pertsona bat izendatu duela zuzendaritza-, antolaketa- eta diziplina-lanak gauzatzeko EJIek kontratatutako zerbitzuak ematen dituzten haren langileei dagokienean, [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian jasotako I. eranskinean arabera.

## II.- KONTRATUA AMAITZEA

## 3.- LANAK AMAITZEA

- 3.1 EJIeko arduradunak aztertuko eta egiaztatuko dituzte materialak, lanak edo zerbitzuak. Ados badaude, aldeko txostena emango dute, eta une horretatik aurrera hasiko da zenbatzen kanpoan egindako lan guztiek eduki behar duten urte bateko bermea, egindako probetan aurkitu ez den akatsen bat egon baitaiteke.
- 3.2 Ez badira adostutako epeak betetzen horretarako arazoirik gabe, baldintza berezietan adostutako zigorrik aplikatuko dira.
- 3.3 EJIeren egoitzan edo hark adierazitako tokian entregatu beharko dira material eta/edo zerbitzu guztiak, inolako igorpen-gasturik gabe, eta dagokien entrega-albaranarekin.
- 3.4 Hornidura-kontratuaren, derrigorrezkoa da materiala behar bezala zumitzez bildutako paletetan entregatzea, eta horiek modu egokian maneiatzeko moduan prestatuta egon behar dute, horiek metagailu elektrikoaren bidez deskargatu ahal izateko, eta ez eskuz; izan ere, horrela ez bada, EJIek garraio hori ukatu ahal izango du.

## III.- EJI-REN ESKUMENAK ETA JURISDIZKIO ESKUMENDUNA

## 4.- ESKUMENAK

- 4.1 EJIek kontratua interpretatzeko, aldatzeko, eteteko eta suntsitzeko eskumena du.
- 4.2 Alderdi kontratatzailearen baten aldetik gatazkarik egonez gero, aurrez adosten da Gasteizko Auzitegi Arruntan Jurisdikzioaren bidea.

NORK ONARTUA

Izena:  
Kargua: